



139. ZK.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, 2010eko otsailaren 23an.

Ikusirik 2009ko azaroaren 25eko 980 zenbakidun Alkatetzaren Dekretu bidez, Elizalde auzoko Elizalde Herri Eskolako haurren jolas-parkeko lurreko zorua aldatzeko lanen kontratazio-espedita onartu zela eta esleipena egiteko jardunbideari hasiera eman zitzaioela.

Ikusirik ondorioz Ganboa Lan, S.L., Lurkoi, S.L., Carpinteria del Bidasoa Laster, S.L. eta Electro Talleres Zarauz, S.A. (Jolas) enpresei gonbidapenak bidali zitzaizkiela.

Ikusirik enpresa horiek bidalitako eskaintzak ondorengoak direla:

Enpresak	Eskaintzak (BEZ barne)	Gonbidapeneko aurrekontua (BEZ barne)	Beherakada	%	Epea
Montajes Garra, S.L. (Jolas-en hornitzailea eta instalatzailea)	36.763,42€	58.733,06€	-21.969,64€	-37,41	4 aste
Ganboa Lan, S.L.	44.081,86€		-14.651,20€	-24,95	5 lan egun
Carpintería del Bidasoa Laster, S.L.	48.953,65€		-9.779,41€	-16,65	4 aste
Lurkoi, S.L.	51.095,10€		-7.637,96 €	-13,00	25 egun

Kontuan harturik udal arkitekto teknikoak eta administrazio orokorreko teknikariak gaiaren inguruan idatzitako txostenak.

Ikusita Obrak eta Zerbitzuak batzordeak 2009ko abenduaren 15ean egindako diktamena, eta berarekin adostasunean, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau **ERABAKI DUT**:

Montajes Garra, S.L. enpresari esleitzea Elizalde Herri Eskolako haurren jolas-parkeko lurreko zorua aldatzeko lana **behin-behingo** izaeraz, 36.763,42€-ko zenbatekoagatik (BEZ barne) eta 4 asteko gauzatze-eparekin.

Esleipendunak 1.584,63€-ko behin betiko bermea jarri beharko du, eta ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu: Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko ziurtagiriak, eskriturak eta ordezkariaren NAN kautotuak, eta kontratatze debekurik ez duen aitopen. Horretarako 10 egun baliodunetako epea izango du esleipen hau kontratatzailearen perfilean publikatzen denetik. Agiriak aurkeztu eta epe hori igaro ondoren, 5 egun baliodunetako epean **behin betiko** esleipena egingo da.

Ordainketa udal aurrekontuko 1 0602.622.422.11.02 (A/3924-2009) diru-atalaren kargu egingo da.

Aitor Etxeberria Txurio alkate-lehendakari jaunak agintzen eta sinatzen du, eta neuk, idazkari naizenez, ziurtatzen.

